






UDAL HAUTESKUNDEAK - OKERRA BOTO BATUKETAN

EA-EAJk ez du gehiengo absolutorik Udaletxean

■ Boto kontaktan oker bat izan da eta, EA-EAJk 8 zinegotzi atera ditu ■ EB-IUri 2 zinegotzi eman zitzaizkion hasieran, baina, 3 izango ditu ■ PSE-EE eta PPren ordezkariak ez dira aldatzen.

EA-EAJ koalizioak 8 zinegotzi izango ditu Hernaniko Udaletxean, eta beraz Joxan Rekondo buru duen koalizioak ez du gehiengo absoluturik izango. Zinegotzi hori EB-IUk eramango du, eta denera 3 izango ditu.

Udaletxeak eta Diputazioak hauteskunde gauean emandako datuen arabera EA-EAJ koalizioak 9 zinegotzi atera zituen eta beraz gehiengo absolutua zegokion Udalbatzarrean. Atzo eguerdian, ordea, Udalak jakin arazi zuen oker bat gertatu zela, eta bederatzigarren mahaiako (Ereñotzu) datuekin nahasketaren bat gertatu zen Udalean botoen suma orokor-

UDAL HAUTESKUNDEAK - EMAITZAK			
	Botoak	%	Zinegotziak
 BILDU HERNANI BILDU HERNANI + nuloak	3.667	37,00	-
 EA / EAJ	2.840	28,66	8
 PSE-EE	1.544	15,58	4
 ezker batua berdeak EB-IU	958	9,67	3
 PP	671	6,77	2
BOTO ZURIAK	231	2,33	

ra egiterakoan, eta hor etorri zen okerra. Beraz, Karlos Quintana Laduz izango da zinegotzi, EB-IUko zerren-

dako hirugarrena, Patxi Artola (EA-EAJ) beharrean. Zinegotzi aldaketa horrek dezente aldatzen du Udalba-

tzarraren panorama, EA-EAJ koalizioak beste talde baten babesa beharko duelako gehiengo osoa izate ezkerorik. □

Mertxe Etxeberria: "Ez gara papurrekin konformatuko"

BILDU Hernani plataformak atzo iluntzean zuen egitekoa hauteskunde balorazioa, eta bihar izango da horren berri. Nola nahi ere, Mertxe Etxeberria esan du herritarrek plataformari emandako erantzuna izugarria izan dela, eta eskerrak eman dizkie guztiei. Aurrera begira nola jokatu eta zer pauso eman ere bileran eztabaidatuko du Bildu Hernanik. Nolanahi ere, Mertxe Etxeberria aurreratu du Bildu Hernani "ez dela papurrekin konformatuko" Udaletxean izan lezakeen parte hartzean. □

Kaxko Elkartek bilera bihar

ALDE Zaharreko Kaxko Auzo Elkartek bilera deitu du ostegun arratsalderako. Kaxkok bi gai nagusi ditu bilera horretan aztertzeo: batetik, Alde Zaharra berrietzeko hirugarren fasearen inaurgurazioa, eta bestetik Karmen jaiak. Kaxko elkartek auzotarrei bilerara joateko deia egin die: bihar, 20:00etan, Biterin. □

Ipuin kontaketa gaur Liburutegian

LUR Korta ipui kontalaria ariko da gaur Biteriko liburutegian, umeentzako ipui kontaketa. Lehen saioa 17:30etan da, 3-4 urte artekoentzat eta bigarren saioa 18:00etan, 5-7 urtekoentzat. □

Cabarcenora bidaiaria maiatzaren 31an

TXANTXANGORRIK larunbatean egingo du bidaiaria Cabarcenora, 10-15 urte arteko gazteentzat. Cabarcenoko lakuan arrantza txapelketa egingo dute. Izen ematea ostiralera egin behar da Txantxangorri. Prezioa 10 euro. □

Joxan Rekondok onartu du hauteskundeek "legitimate murriztua" izan dutela, baina, uste du izan dutena ere denek onartu beharko luketela

■ EA-EAJko alkategaiaren esanetan, botoen % 36 legez baliogabeak izan direla onartuta, uste du botoen % 64 baliogabeak izan direla, eta hori ere denek onartu beharko luketela ■ EA-EAJ pozik, lortutako botoekin.

JOXAN Rekondok Udal hauteskundeetako emaitzen balorazioa egin zuen atzo. EA-EAJko alkategaiak onartu du hauteskundeek "legitimitate murriztua" izan dutela. Baina, uste du, duten legitimitatea ere aitortu egin behar zaiela. "Botoen % 36 baliogabea izan da, baina, % 64 baliogabea eta hori ere denek onartu beharko lukete" dio Rekondok.

Herritarrek emandako botoari dagokionez, Joxan Rekondok bi gauza azpimarratu ditu: batetik, nabarmendu du EA-EAJ koalizioak 1979 ezkerorik Udal hauteskundeetan izan dituen emaitzarik onenak lortu dituela, eta be-

raz, uste du oso emaitza positiboa izan dela. Bestetik, nabarmendu duena da "Bildu Hernanik aurreko Udal hauteskundeetan lortutakoaren hirutik bat galdu" duela, 1.500 boto inguru.

Hiru bloke
Igandeko emaitzak ikusita EA-EAJko kandidatuak uste du orain hiru bloke gelditu direla: "1) euskal erakunde zaleen blokea (EA-EAJ eta EB-IU) boto ordezkariaren % 40arekin, 2) boto baliogabea eman zutenak, ordezkariaren % 36ekin eta 3) beren burua Konstituzionalistatzat dutenak, ordezkariaren % 23arekin".

Konfiantza bideak ireki
EA-EAJk ez du gehiegi argitu ez Udaletxeko gobernua osatzeko zer pauso emango dituen eta ez Bildu Hernanik lortutako ordezkariarekin nola jokatu duen. Joxan Rekondok adierazi du zuhurtiaz jokatzeko garaiak datozela, ahaleginduko dela integrazioa bilatu, parte hartzea bultzatu eta konfiantza bideak irekitzen, eta azpimarratu du, programa betetzeaz gain, herri giro ona eta lasaia izatea dela 4 urteotan herriari utzi nahi diona.


Gobernua osatzeko paktuei buruz, EA-EAJko buruak esan du lehentasuna Jaurila-

ritza babesten duten alderdien arteko hitzarmenak izango duela. EA-EAJ Udal Talderen baten babesa beharko du gehiengo osoa lortzekotan. Aste honetan bilduko da Hernaniko EA-EAJ eta hor erabakiko dute zer bilera kalendario jarraitu.

Erabaki orokorra
Bildu Hernanik lortutako ordezkariarekin zer jarrera izango duen galdetuta, Joxan Rekondok esan du EA-EAJk erabaki orokorra hartu beharko duela Euskal Herri osorako, eta Hernanin ere erabaki horren gainean lan egingo dutela. □

www.kronika.net
HERNANIKO
kronika
Intemeten helbide berrian

Allianz 
ASEGURUAK
Agustin Ezponda
AGENTZIA
Telf.: 943 557 326
656 735 109

GOXOKIAK
ROMBER
okindegia

Karmelo Labaka 6 - behea
Tel.: 943 331 123


ETXE ONENAK, S.A.
GARAJE ITXIAK
"OBLATOS" ETAN
SALGAI
Informatu eta saldu:
☎ 943 33.22.37

DORRONSORO

OKINDEGIA
Bertan egindako kalitatezko ogia
J.Dorronsoroko Okindegia, S.L.
Lizeaga, 7 943 33 36 18 -20120 HERNANI



Txalapartariak eta ikusleak Elizatxo Ikastolan egindako erromerian.

Eguraldi txarrak Elizatxora eramane zituen Txalaparta Festako ekitaldiak

LARUNBATEAN Txalaparta erromeria eta jaialdi nagusia izan ziren eta ekitaldiak Tilo-setan egitekoak baziren ere, Elizatxoko aterpean egin ziren eguraldi txarragatik. Arratsaldean, urtero bezala, txalaparta saio libreak izan ziren eta afalondon etorri zen

txalaparta jaialdi nagusia, ia probintzia guztietako txalapartariak Hernanin zirela.

Txalaparta Festak Jexux Artze txalapartari zena izan du protagonista nagusia, bere oroimenez eta omenez antolatatu baitu *Ttakun Ttan Ttakun* Txalaparta taldeak 17garren

edizio hau. Larunbateko ekitaldia ez ezik, ostiralean Azarna Kolektiboak *Denbora* izenburuarekin emanaldi berezia egin zuen Biterin, eta gauean *Txalaparta Party Aparta* izan zen. Ostegunean, Joxanton Artzek hitzaldi-emanaldia eskaini zuen. □



Udal Euskaltegiako ikasle eta irakasleak, Brinkolan egin berri duten Barnetegian.

Udal Euskaltegia gustora Brinkolan egin berri duen Barnetegian

UDAL Euskaltegiak Udaberriko Barnetegia egin berria du Brinkolan. Denera 18 lagun izan ziren maiatzaren 16tik 18ra eta euskera landu eta praktikatzear gain, ingu-

rua eta bertako kultura ezagutzeko aukera ere izan dute ikasleek: Ezkio-Itsasoko Igarubeitia baserria, Mirandaolako burdinola, Ogiaren txokoa Igaralde baserrian, Gaztaren mu-

seoa Reizabal baserrian, Barrendiola urtegia eta abar.

Euskaltegiak barnetegia oso balorazio positiboa egin du eta hurrengo udazkenean izango dute. □

Santa Barbara elkarteko mus txapelketako finala larunbatean

SANTA Barbara Elkarteko mus txapelketa azken fasean da, eta larunbat honetan jokatuko da finala. Semifinalerako klasifikatu diren 4 bikoteak honako hauek dira,

bakoitza bere kontrarioarekin: Jose Luis-Aita/Sesma-Kaki; eta Bitxo-Joakin/Satur-Xabier. Finalerdiak, hain zuzen ere, atzo gauean ziren jokatzeoak.

Finala 20:30etan

Finalean sartzen diren bi bikoteak larunbatean 20:30etan jokatuko dute txapela. Ondoren afaria eta afalondon banatuko dira sariak. □



Etxeberriko umeen tanborrada, San Joanetan.

Tanborradarako ensaioak

ETXEBERRIKO Lagun Artea elkarte ari da gaztetxoen tanborrada ensaioak egiten San Joanetara begira. Etxeberriko danborra jole gazteak urtero ateratzen dira herriko jaietan. Ensaioak astelehenetik ostegunera dira.

Santa Barbara elkartean ere ensaioak bihartik

Santa Barbarako tanborradak ere parte garrantzitsua du San Joanetako egitarauan eta bihar arratsaldean (ostegunean) hasiko ditu ensaioak, elkartean bertan. □


Mendiriz Mendik eskalada ikastaroa antolatu du Santa Barbaran eta Eginon

MENDIRIZ Mendi elkarteak eskalatzeko ikasteko kurtsiloa antolatu du maiatzaren 31 eta ekainaren 1erako. Inñaki Zuza arituko da erakusten. Ikastaroa Santa Barbara eta Eginon izango da. Larunbatean, Santa Barbaran eta igandean Eginon.

Eskalada ikastaroa egin nahi dutenekin Mendiriz Mendik bilera antolatu du ostiral honetan, ikastaroaren berri eman eta nola planteatu ikusteko. Bilera arratsaldeko 20:00etan izango da, mendi elkartean. Ikastaroa, 10 euro da eta materiala norberak eramane behar du.

Mendi bizikletan Orbaizeta ingurura

Mendiriz Mendik mendi bizikleta martxa antolatu du aste-buru honetarako, Orbaizeta (765 m) eta Olloki Lepora (1.326 m). Larunbatean, 17:30etan aterako da autobusa Hernanitik eta Casa Iriarte aterpean egingo dute lo, Orantzen afalduta. Igande goizean, Olloki Lepora autobusez joango dira, eta han hasiko dute Orbaizetarako bizikleta martxa: Abodi mendilerroa, Irabiako Urtegia eta handik Orbaizetara. Ibilbideak ez du zailtasunik, baina, hala ere Mendiriz Mendik beste ibilbide errazago bat ere prestatuta dauka, eguraldi



Eskalatzailer bat Santa Barbaran eskalatzeko.

txarra edo izan ezker. Izen ematea 32 euro da eta epea ostiralean bukatuko da. Mendiriz Mendik adiearazi du komenigarri dela kaskoa jartzea, eta edozein ezbehar mekanikori aurre egiteko materiala eramane behar dela. □

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶ DYA: 943 464622
- ▶ Autobusak: 943 556662
- ▶ Anbulatorioa: 943 006666
- ▶ Jokalari anonimoak: 943 331103

☎ FARMAZIAK

- ▶ Egunez: Correa Perkaiztegi 8 ☎ 943 551933
- ▶ Gaez: Correa Perkaiztegi 8 ☎ 943 551933